

Gazteak oso kezkatuta daude klima-larrialdiarekin

Espainiako gazteen % 97 kezkatuta dago klima-larrialdiarekin. Uste dute ondorio konponezinak izango dituela eurentzat eta hurrengo belaunaldientzat. % 82k ekoantsietatea sentitu du noizbait; eta laurdenak sarri. “[El Futuro es Clima](#)” txostenaren emaitzak dira.



ARG.: John Englart/CC 2.0 BY-SA.

Gazteen % 80k uste du gizartearen kontzientziaziomaila ez dela nahikoa. % 64ri iruditzen zaio hedabideetan leku gutxiegi ematen zaiola gaiari. Haien ustez, trantsizio eraginkor bati ekiteko giltzarriak egungo bizimoduaren dezelerazioa eta beste eredu bat sustatzea dira. Prest daude konpromisoak hartzeko eta trantsizio ekologikoan parte hartu nahi dute. % 94 prest daude aisialdiko bidaietan ibilbide luzeagoak egiteko, gutxiago kutsatzen duten garraiobideak erabiltzarren.

Uste dute trantsizio hori gobernuek abiatu eta gidatu behar luketela. Proposamen zehatzak egin dituzte: ekoizpen-baliabide iraunkorrak eta garraio publikoa erabiltzea, energia berriztagarriak merkatzea, elikadura-sistema birplanteatu eta haragikontsumoa murriztea, birziklatzea zorrotzago egitea, eta plastikoen erabilera debekatzea. ●

Jakintza
zabaltzen
segi
dezagun
euskaratik
eta
euskaraz.

